

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 35 urte baino gutxiago dituzten gazteentzako erosteko aukera ematen duen alokairua jarri du abian

Astiz kontseilaria Buztintxurira (Iruña) joan da datorren irailaren 20tik aurrera esleituko diren 55 etxebizitzako promozioa ikustera

Lunes, 05 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren modalitate berri bat jarri du abian: 35 urtetik beherako gazteentzako alokairua da, erosteko aukera ematen duena. Anai Astiz Sustapen eta Etxebizitza kontseilaria Iruñeko Buztintxuri auzora joan da modalitate horretako 55 etxebizitzako promozio bat ikustera. Datorren irailaren 20tik aurrera esleituko dituzte.



Astiz kontseilaria etxebizitzaren teilatuan

Astizek azpimarratu du "Nafarroako Gobernuak lehen aldiz eskaintzen dio gazterari modalitate hori". Helburua zera da: "Etxebizitzaren alorrean, gizartearen beharrezanean erantzutea eta gazteentzako alokairuaren eta hori eskuratzeko erraztasunen inguruan gizarteak geroz eta gehiago eskatzen duenaren ardura hartzea".

55 etxebizitzak Iruñeko Ventura Rodríguez kalean daude eta irailaren 20tik aurrera esleituko dituzte abuztuaren 31n eskatzaileen erroldan izena emanda daudenen artean, betiere 35 urtetik beherakoak izan badira eskaria egitean eta familiako kideen kopurua lau baino handiagoa ez bada.

Promozio horretako etxebizitzaren obrak 2009ko urriaren 1ean hasi zituzten eta 2011ko ekainaren 29an bukatu. Iruñeko Udalari 2006ko urriaren 7an erositako lursailean eraiki dira.

55 etxebizitzetatik 47k bi gela dituzte eta 8k gela bat. Bi gelako etxebizitzek 62 eta 75 metro koadro artean dituzte, eta gela bakarrekoek 40 eta 46 metro koadro artean. Guztiek garajea eta trastelekua dituzte. Errentan hartzeko prezioa 324 euro



Astiz kontseilaria Buztintxurira joan da gazteek aloka ditzaketan eta erosteko aukera ematen duten 55 etxebizitza ikusteko

(txikiena) eta 541 euro (handiena) artekoa da hilean.

Astizek esan du: "Hala, Nafarroako gazteei etxebizitza lehen aldiz eskuratzeko aukera ematen zaie, eta etorkizunean etxebizitzan jabeak izan nahi izanez gero, hala egin ahal izango dute".

Sustapen eta Etxebizitza kontseilariarekin batera izan dira Marie Gómez Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia, Luis Cruchaga VINSako zuzendari kudeatzailea, Teodoro Hoyos Obras y Construcciones La Mejana, S.A. enpresa eraikitzaileko kudeatzailea, Francisco Bellido, Javier Fernández eta César Sesma arkitektoak, eta José Ignacio Domezain eta Juana Ochoa aparejadoreak. VINSAtik Antonio Prieto (arkitektoa) eta David Chocarro (aparejadorea) obra ikuskatzeko arduradunak ere joan dira.

Goiko argazki-oina (ezkerretik eskuinera): Hoyos, Ochoa, Sesma, Prieto, Fernández, Astiz, Gómez, Bellido eta Cruchaga.

Behoko argazki-oina (ezkerretik eskuinera): Gómez, Prieto, Astiz, Cruchaga, Ochoa, Hoyos eta Sesma.